


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2011KO URRIA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuek ez dute aldaketarik izan (%0,0) 2011ko urrian, aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko urritik 2011ko urrira) eraikuntzaren kostuak % 2,0 igo dira.

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea: EUSTATen datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzako kostuen indizeak ez du aldaketarik izan (% 0,0) 2011ko urrian, aurreko hilabetearen aldean; baina hilabete horretako urte arteko tasa % 2,0 igo da.

Abenduako urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza urriko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2011ko urrian eskulanaren kostuak eta lehengaien kostuak ez dute aldaketarik izan (% 0,0).

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreetako lehengaien kostuek antzeko bilakaera izan dute urrian: eraikuntzakoak ez dute aldaketarik izan (% 0,0); obra zibilean kontsumitu diren lehengaien kostuak % 0,1 egin du behera, aurreko hilabetearekin erkatuta. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera aztertuta ikusten da eraikuntzako lehengaien kostuek % 1,5 egin dutela gora, eta obra zibileko kostuek ere gora egin dutela, % 4,9.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, petrolioaren birfinketa (% 23,8); energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 22,5) eta industria kimikoa (% 7,4) izan dira. Baina ondoren ematen direnetan lehengaien prezioek urte batetik bestera (2010eko urritik 2011ko urrira) behera egin dute edo igoera txikiagoa izan dute: erauzteko industriak (-% 1,1); metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (% 0,1) eta altzarien fabrikazioa eta manufakturen beste industria batzuk (% 1,3).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO URRIA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,8	0,0	2,0	1,2
ERAIKINAK	118,8	0,0	1,5	0,9
OBRA ZIBILA	123,6	-0,1	3,9	2,3
LEHENGAIEN KOSTUA	119,1	0,0	2,2	1,2
ERAIKINAK	117,8	0,0	1,5	0,7
OBRA ZIBILA	123,9	-0,1	4,9	2,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.